

Erref. kodea: LAF-219-191 [49]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak: Labaien,

Antonio Maria: *Elizanburu bere bizitza ta lanak*

Antonio M. Labayan

Elizamburu

Registre des naissances de Sore

- a) Le 28-1-1827 = naissance de Martin E., fils de Michel Elisamburu, âgé de 36 ans, préposé des Douanes Royales, domicilié dans la maison Piarrsenea de cette commune et de femme Grazabal sa femme.
- b) Le 14-8-1828 = naissance de J.B. E. fils de Michel E., sous-lieutenant des Douanes Royales domicilié à Piarrsenea, (quartier d'Artillerie) et de femme Grazabal sa femme.
- c) Le 27-12-1830 = naissance de Jeanne E., fille de Michel E., sous-lieutenant des Douanes, locataire maison Adameta (quartier d'Artillerie) et de femme Grazabal.

Notes : La signature de Michel E., qui figure au bas de ce acte, est fine et jolie.

- 2° - j'en ai trouvé aucune autre naissance d'Elisamburu dans le registre de Sore, entre 1817 et 1835.
- 3° - les registres de mariages antérieurs à 1817 ne mentionnent pas non plus de mariage de Michel E. et de Jeanne I.
- 4° - à noter les noms des maisons Piarrsenea et Adameta. Tenait-ce au souvenir de la maison de la naissance et de celle de la première enfance que Jean-Baptiste aurait choisi ce nom de Piarrse Adamé.
- 5° - on peut penser qu'il y eut d'autres naissances, entre celle de Léon E. le 1-3-1816 à Ossès et celle de Martin le 28-1-1827 à Sore - Il y aurait donc à poursuivre des recherches à Ossès, et peut-être ailleurs.
- 6° - les actes de naissance et décès de Sore donnent comme domiciles successifs de Michel E. et de sa famille, à Sore, la maison Piarrsenea, puis Adameta, et enfin Granada.
- Michel E. est décédé dans "la maison Harotz Etcheverry" d'après ce que l'on a vu le 1-11-1835 - tenait-il d'être traité de Sore à Antagnès ?
- 7° - L'abbé Bonamolianan, dans la liste des maisons de Sore, ne mentionne ni Adameta, ni Piarrsenea - Il mentionne Granada - Ces 3 maisons sont du quartier d'Artillerie.

Michel Elissamburu : recherche faite à Sare le 15/10/85

Registre des sépultures (presbytère) :

Granada
Jeanne
Trazabal
L'an mil huit cent trente cinq et le cinq
octobre a été inhumée au Cimetière de cette église
avec la cérémonie usitée, le corps de Jeanne
Trazabal âgée de quarante six ans, épouse
de Michel Elissamburu, décédée la veille à
Granada.
Signé : Barnetche vic.

Sur ce registre, il n'existe pas de mention d'inhumation, à
Sare, du corps de Michel Elissamburu, décédé 26 jours
plus tard à Arcangues le 1-11-1835.

Registre de décès (mairie) (résumé) =

L'an 1835 et le 4 octobre à 10 heures du matin, déclaration
faite devant Xavier Domaletche maire, par Martin
Facherie, prop^{re} de Bendaideguia, et Bernard Elinalde
locataire d'Uhartetcherria, les deux habitants Sare, voisins
de la défunte que Jeanne Trazabal ménagère, âgée de
46 ans, épouse de Michel Elissamburu sous-brigadier (sic)
de la Douane, locataire de la maison dite Granada de cette commune
est ~~resté~~ décidée à fuir à 5 heures du matin.

Nota = La maison Granada existe encore = elle appartient
à Madame Christia, et est actuellement, aussi, occupée
par des locataires.

Michel père de J.B. né à Baigorry en 1790, fut
instituteur avant d'entrer dans la douane

Jean, père de Michel, id. Baigorry en 1793, ne suit
ni livre ni carte

Ante M. Lubayen

Elizamburu

Bere bizitza ta lanak

" On a découvert qu'une oeuvre littéraire
n'est pas un simple jeu d'imagination,
le caprice isolé d'une tête chaude, mais
une copie des moeurs environnantes et
le signe d'un état d'esprit."

(Taine, Histoire de la littérature anglaise)

- 4 -

E. ELIZANBURU

bere bizitza ta lanak

Gizon gutxi izan ditugu euskal-literaturan benetan omen-
dun eta ospetsu. Eta ez da arritzekoa. Euskera utxsezko elertia-
ren etekiña urria izan bait da.

Alare, gizon bakan oietan famatunetatik bat Elizanburu
izan dugu. Egun gure artean aintzakotzat ba-daukagu, bizi zala-
rik ere bere erritarrok ederretsi zituzten aren neurtitz eta
kanta unkigarriak. Aoz-ao, belarriz-belarri Euskalerra guzira
edatu ziran. Zer nai duzute ospe aundiagorik? Ori izaten bait
zen antziñeko klasikoen barrea-bide aut.

Jean Baptiste Elissanburu-onela azaltzen da ^{arren} Sara'ko
eliz eta erri-etxeke agiritan, guk soil-soilik eta zeatzago
Elizanburu deituko duguna, poeta ta neurtitzlari bikain eta goi-
tarrenetako bat dugu. Ez bakarrik Lapurdi eta Benaparroa'n eza-
guna, baita Gipuzkoa ta Bizkaia'n ere. Berak aberastu ta gora-
tu zualakoz euskal-kantategia.

"Il mérita de passer dès les premiers pas pour le
roi de nos poètes" dio ederki Pierre Lafitte idazleak (1)

Elizanburu'k sortu ta asmatutako itz-neurtu ta kantuak
erri xehak ikasi zitun beretzat arturik. Au dute poetak sari-
rik garaiena: bere lanak izena gal eta erri guziarenak, otsi
sasikoak biurtzea.

Ez da gezurra Mde de Villehelio (2) J.
Salaberry (3) eta J. Manterola (4) bere euskal eresi sailen
bidez gure doñu ta neurtitzak edatu izan zituztela. Baiñan oien
liburuak zabaldu aurretik, eta irakurtzen ez zekitenen artean
ere, Elizanburu'ren bertsuak ezagunak ziren.

Ostatu ta sagardotegietan oiukatzen zituzten ordurako
"Ikusten duzu goizean" ahapaldi baretsua, edo ta "Herriko besta
biharamonean" solas bizi eta zorrotzak. Letradunek baño jende
ez ikasiek Elizanburu lenago ezagutu zuten koplari aunditzat.

1° "Le Basque et la littérature d'expression basque - 2. Souvenir
des Pyrénées" 1869 3 - Chants Populaires 1870 4 - Cancionero Basque Vauv 1878

5

Karlista-gudatean aruntz-onuntz maiz zenbiltzetan soldadu euskaldunek, mugaz alde ontara beste aldeko kantu errikoi anitz zabaldu zituzten. D. José de Orueta'ren liburu batean (1) irakurri dugu bere gaztaroan Bilbo'ko txakolindegietan "Etxe" zuria" (sic) abestutzen zela. Ordurako iñork uste gabe araño eldua zen Elizanburu'ren omena. *Eta ez Unibersidadearen bidez, ababearrez.*

Ez dut lan ontan gure olerkari saratarra beste euskaldun koplari guziekin alderatu ta neurtu nai. Komparazio ori luzexkoa izango litzake. Gaia erabilliaz ordea, berez aterako zaizkit zenbait artzezketa ta so-aldi Andre Poesia'ri buruz eta berrietatik irtengo da Elizanburu'ren goresmena.

Zergatik, galdegin dezake norbaitek? poeta batzuek alako arrera ona izan oi dute ta besteak ez dira onartuak?..

Sara'ko semea beinik-bein onirtzia izan zen erriaren senaz bat egiñik zegolako. Bere itz-neurtuak obeto ulertu zitzaten aire zahar eta antziñeko doñutan paratu zituen. Bertsu "naturalik" ez bada, Taine'k Lafontaine'n alegiak ausnartzen ari dela aitortzen duanez, gure olerkariak "berezko neutitzak" sortzen leai zan; ta bideari lotuta tankera errez ta taiuzkoa asma zuan bertan euskaldungoaren gogoia irauliaz.

Leen ere kritikari anitz jardun izan dire Elizanburu'ren bertsu-lanak luze-laburrean zila ta iritzi-miritziak ematen. Duvoisin ainhoarrak asiera eman zion. Onek lenbizi saratafa'ren gaitasun eta doaia agertu zituen. Gerora ordea, biek auzokide, biek kapitain.. elkarrekin samurtu ziren eta Duvoisin'ek ez zun beti zuzen iritzi aren etorria. (2) *Vinson*

Urrengo, Aita Lhande, Errotarena, Veyrin, eta P. Lafitte'k goraiatu dute Elizanburu'ren izena, Lapurdi aldean beintzat.

Bidasoz alde ontatik berriz José ^{Manterola}, K. Etxegarai, Gregorio Muxika ta P. Mourlane-Mitxelena izan dire irizle nabarietak.

Azken aipatu idazleak itzaldi oargarri bat opa izan zion 1918 urtean Oñati'n egindako Batzar antzi-eziñean. (3)


Mourlane-Mitxelenak irakurgai galien ortan iritzi zorrotz eta txalogarri asko adierazten dizkigu Elizanburu'ren nortasunez.

(1) Memorias de un *Belbaino*-E. Txaropuz Zarauz - 1952

(2) RIEV. 1929-30 Daranatz. Correspondance de C. Duvoisin

(3) Congreso de Estudios Vascos Tomo I "la Poesía Vascongada en el siglo XIX

Kritika ta maxiaketaren ur sakonean murgildu aurretik, biografi antzera esan zagun gure gizona nun eta nolako izan zen. Ikus itzagun beraz aren zantzuak sortu ta il zen errian xehetasun billa gabiltzalarik.



Jean Batipste Elizanburu 1828 garren urtean Dagonillaren 14'n sortu zen Sara'ko errian. Aita-ama Mitxel Elizanburu ta Juana Irazabal izanik. Aita, Aduana'ko garden aintzindari zauten eta jatorriz Hasparren aldekoa. Daranatz kalonjeak Elizanburu etxaldea Irisarri'ko "sala" bat zela dio. Etxe-nagusia omen (1) Ni aztarren bila ibillia nazu nere adiskide jakintsu D. Martin Elso'ren laguntzaz, bañan damurik ez dugu garbitasunik lortu oraindaño.

Irisarri'ko erri-etxean iardetsi digute ez dela beñe-re an Elizanburu izeneko etxerik ukan. Orobat erantzun dute Ioldi, Makea ta Heleta'ko erriek. Alare, azken erri ontan elizanburutarren urratsak atzeman al izan ditugu eta ene baitarako eskualde ortan sortu bide zen gure poetaren aita. Agian "Zaldunbide" Heleta'ko etxean. Ama berriz, entzuna dugunez Zugarramurdi'koa. omen.. (1)

1789 garren urteko izugarrizko Erreboluzio ta matxinadaren ondorengo bat Prantzia eta España'ren artean aduana jartzea izan zen. Eta ori gure mugetan egin oi zen sal-erosketa ta artueman kaltean izaki. Euskaldunok dakite ondoen, muga zaldi gainean bait daude, aduana ezaren balioa. Ta au jarritakoan nai ta nai ez kontrebandoaren langintza sortu bear izan zuten, *biriko ba'ziran.*

Orduan asi zen muga-zai ta kontrabandisten arteko jokua. Eta joku ontan saratarrok nagusi pillotan bezenbat.

Giro ortan egin zen gizon Yan Batite "Piarresenea" etzeko mutikoa, Istilar auzoan. ~~Ete~~ ori aspaldi suntsitua ~~dago~~, *astarrenik utziteke.*

Sara'ko auzoak Plazaz lekora auek ziren: Basaburua, Egimehar, Ehialar, Elbarrun, Istilar eta Lehen-Bizkai.

"Istilar"erribera edo errepira aldean dago Portua inguruan. Emendik igortzen zituzten itsasora burni, ^{artile,} egur, ikatz, zuaitz eta gañerako mozkiñak. Egun ere bide gurutze ortatik doaz Sara'ko arat-unat guziek. Larrun, Ibanteli ta Atxuri medien ~~parte~~ orrek Arane ballaratxoa deritza. Izen au daramate ango etxe anitzek: " Arantipia, Aranederrea, Aranaberria, Aranbidea, Aranetxeberrria, Aranaldea eta Arangurenea.. *Ba ote inun arar politagorik?* (aingonea)

(1) *Antaria jauregi-erpekoa. Fagoaga. Borda
ta Ioldi jatorrikoa.*

7
Etxe oiek, Sara'ko beste geienek bezala eguzki aldera begira daude, mendebalari gibela emanaz. Errekaz gora, Lekunberri zubitik aruntz, Artxuri, Liñarrieta eta Lizuniaga aldera etxe ta bordak gutxitzen doaz ugaritzen berriz iratz-leku ta oianak.

Antziñan saratar asko itsas-gizon genitun. Donibane ta Ziburu'ko ontzietan urrungo arrantzara eta itsas-gudu ta beste burruketan leia ziren. XVIII garren mendetik onuntz itsasoko arrixkuari uko egin eta geienek laborari, artzain edo beste langille arrunt eginik geldi zaizkigu. Ausartienak, lehen korsario edo itsas-lapur zirenak, egun kontrabandista otsi muga-lapur billakatu dira. Itsas-gizonen arrixku ta neke-lerrien orde ez dituzte jasaiten zenbait gau latzgarri ta illunen jazarrak baizik.

Noizbait amaitu zen Napoleon mendeko gudaldi luzea. Erregetzaren lili idortuak birloretu ziren berriz. Elizanburu'k pakeanigaro zitun aurraldi ta gaztaroa. Errialdeak soldaduz libre gelditu ziralarik etxe-jaun eta bordariak kartsuki lotu ziren beren zeregiñari, alorrak landu ta azienden begiratzera. Bearrik alarei

Neskato- mutikoez orobat eskolara abitzen ziren aski zintzo. Eta Piarresenekoak ez ziren alferrenetarik, naiz pipere bat edo beste egiñik, gero Elizanburu'k "Piarres Adame" irakurgai agertzen digun gisan. Gure "Yan Battit"ikasle sendo ta argienetarik izan zen ixturiotan eta ortara arta zuten aren guraso ta orduan Sara'n zuten "lehen errieta" Jean Mendiburu jaunak, elizanburutiarren arras adiskide zena.

Gure mutikoa ain zetorren buruz ongi jantzi eta gogotsua Sara'n lehen ikaskizunak bukatuxeak zitula-ta Larresoro'ko Ikastetxe aundira igorri zuten bigarren mallako ixturioak egitera. Larresoro'n Laburdi'ko gazte nabarmenenak biltzen ziren Bakalaureat eta "humanidade"ta apaizetarako gertutzeko.

Elizanburu'k ere bide au artu zuen Sara'ko "Arizmendi"etxeak ematen zuen "beka"edo laguntzaz balaiaturik.

Ez zuen apaizetarako ez bokaziorik ez gogorik izan bañan an ikasi zituan latin, erretorika eta gañerakoak ongi etorri zitzaizkion, naski, bai gero soldaduzkoan graduak irabazteko... eta bai euskal-bertsu biribillak moldatzeko.

Ortaz gañera lagun onak egin zituen Larresoro'n eta oietan bat aipa bear duguna: Grazian Adema, gero "Zaldubi" ospetsua.

Adin batetsukoak bi gazteak, senpertar eta saratarra, gero kalon-
je ta kapitain izatera elduko zirenak. Adiskide min iraun zuten beti
eriotzaraño. Pierre Lafitte'k Larresoro'ri buruz egindako itzaldia
batean(1) ikastetxe artan Grazian eta Yan Battite'k elkarrekin i-
ragan neke- lan eta jostetaz mintzatu zaigu. Bein-ola bizi-molde
latzari eztingarri zerbait igurtzi arren, bertsu batzuek bi mintzai-
retan asmatzea erabaki omen zuten.

Ona emen ahapaldi batto:

"Zein dohatsu emen, jeunesse fortunée,
Bortz orenak artean, la grasse matinée
Yaki orduko lana; plus tard le dejeuner,
Obeki ditakeia commencer la journée ?..

Orduan ez uste arren, egun dohatzuenak aiek izaki agian bi gazteen-
tzat.. Laister berezi ziren elkarrengandik. Batek apaizgoaren
bide saindua jarraitzeko. Besteak ikaskizunak utziaz 1849 urtean
armen bizitz arriskatua artzeko.

Gure poetaren anai Leon zena aduanako guardetan sartu
zen aitaren antzera. Beste Elizanburu bat beroein lengusua bera Mi-
chel izenekoa erralijioso sartu zen eta ao-ederreko predikari beza-
la arras ezagutu ta maitatua izen omen zen Hasparne aldean. Inozentio
anaia dehua. Orain jarrai zaiogun Yan Battitari soldaduzkoan egin
urrats eta antziña bidean.

Soldadu mutil soil-soilla 21 urte zitularik sartu zen
oñezko Erreximentu batean. Bizkar gaiñean txalma ^{utza} ~~utza~~ berterik ez
zuala- le sac sur le dos" prantzesen arabera.. emeki-emeki graduak
irabazten joan zen. Amazaspi urte berantago 1866 garrenean 59 g.
erreximentuan lieutenant aintzindari arkitzen dugu.

Ikustekoa izango zen sortetxera lenengoz uniforme ortaz
beztitua etorri zenean. Sara'ko Erri-Etxean dagon dagerrotype ar-
gazkian jantzi ortan agertzen da, ^{bularrean medalla} ~~galtzak gorri~~, gerrian ezpata, ^{besoan}
~~berria~~ kasketa. Itali'ko guduaren ondoren gure gizona igotzen joan
zen: buru ta biotza argitu ta berotu zitzaizkion naski, Napoleon III
dirdaien pean grenadieretako kapitain mallara eldu zen. Larruzko
kapelu luze, ta bularra txingola zuriz apaindurik fier et arro dago ^{jantzi}
(uniforme) ortan. 1912 R.I.E.V. aldizkarian ikus diteke irudi ori.
~~XXXXXXXXXXXX~~ Bere militar biziiaz ezer gutxi dakigu ordea.

"Solferino'ko Itsua" deritzan bertsu unkiarriak berak egin zi-
tuala ozta-ozta jakin dudu. Luzaroan uste izan zen poematxo eder

(1) CVRE.HERRIA - 192

hori Salaberry zeritzan poeta batena zela, oartu gabe izen-orde da-
lakoa Elizanburu'k bere burua estaltzeko erabili zuala.

Gai ortaz beste toki batean idatzi dut zerbait(1). Beraz ira-
kurle jakin-goseak bertan arki ditzake xehetasun geiago.

Nola nai den Elizanburu'k Prantzia'ren bigarren Imperio-
ko goiti-beitiak jarraitu zituan azken arte: 1870-1871 urte izigarri
arteraño. i Prusitarrok Napoleon III garrena zapaldu zutenean bere ar-
mada ta gudarozte osoarekin, gure kapitaina erori zen sekulako. Burba-
qui jeneralen mendean zegon eta atzeman zuten katibu Bazaine mare-
lak Metz'en armada errendi zuanean. i Sic transiti.. Elizanbururen-
tzat amait zen soldaduzgoa. Egak moztu zizkioten Imperioa'ren arra-
noari bezala. Ez nigarririk gabe(2). Bere biotz-minaren aundia" Biba Fran-
tzia" olerkian oiukatzen du: - *Andre Madalen donuan,*

*Urte gutti du gau ilun bater
Lo ragolarik bere oharzean ..*


Ez digu beste iñun solas ta guda- ixtoriorik aipatzen. Egi-
penetan ez jakin nolako izan zen; itzetan bai labor ordea. Pake-gizon
genun nunbait eta ez jeneraletako sortua Harizpe bat antzo. (2)

Guda doakabe ark oroitzapen mingotza utzi zion gogoan et ordu
txarrak lehenbaitlen aantzi nai ditu. Ezpata ta gudari-jantzia bazter-
turik sorterrira itzultzen da egun obeen billa, lurrari atxikia. ..

Ordurako ezkondua zen Prantzia Eyheraburu Urruña'ko "Geldie-
nea" etxeko alaberekin eta senar-emazteak Sara'n bizitzen jartzen di-
re "Leku-ederrea" plazako etxean.

Kapitain-erretiruz kampo ogibide bat bear zuan eta
pakezko-jueza Ezpeletako kantoi guzirako izendatu zuten.

Ohorezko langintza orren bidez pamilia apal bederen aazte-
ko diña du eta leialki bete zuen beti bere arloa, eten gabe il arte-
raño 1891 garrenean 63 urte zitularik.



Liburutxo onen azken aldera daude bildi al izan ditugun Elizan-
buru'ren olerki-poesi puska geienak; arek egiñak diralakoan ditugunan
beintzat. Lerroz-lerro errenkadan ipiñi ditu bakoitzari zenbagarren
bat emanaz, irakurleok errez arki al izan ditzaten.

(1) Quien es el autor de "Solferino'ko Itsua"- Aclarando un viejo
equivoco.- Libro Homenaje a D. Julio de Urquijo- Tomo II

(2) "Medaille militaire" irabazi zuen inoiz eta orrek leian nait du
gauritua izan zela.

(2) Beste aitzindari lagunekin Alemaniako
Kasel albean axilotan izan zen
zurbait illabeter.

(1). Baionako "Musée Basque" liburuan
(gordetzen duten cahier batean)
Elizanburu k eskuz batetako cahier
bat gordetzen dute. Eta bertan
ez daude bere 13 poema besterik.

90

Sara'n entzute aundiko etxe-jator batean eskura zidaten gutun
batetik kopiatuak dire ea guziak; an ez zeudenak beste paper eta
sailletatik artu eta aldatu ditut nerera. (1)

Guzira 18 ale dituzu. Bat baño geiago sartzeke utzi-
ko genitun eta norbaitek utsunea oartuko ba'ligu urrengo batez osa-
tzen aal genuke lazokeria.

Nahiztandik asi zen Elizanburu bertsuak egiten? Goraxeago aipa dugu
Larresoro'n ixturianta zegola irri-itzneurtuak paratzen asia zela
bere adiskide min Grazian Adema'rekin. Biek doaia zekarten eta zitu
ederrik eman zuten gerora. ~~KOIKO~~ Sorterritik urrun soldautza be-
tetzen ari zelarik, erri-minak eraginda edo bertsu!bear ori erne
zitzaion. Biotza lasatzearren euskal itz-neurtuak egitera lotu zen.

Urte aietan Antoine d'Abbadie d'Arrast jakintsu euskal-
tzaleak koplakarietzako primak eskeintzen abitu zen. Elizanburu
lenengoz 1860'n nor-geiago ortara "Harluche" izen pean Bertsu-lan
bat "Gazte iltzera dohana" deritzana igorri zuen sari nagusia ira-
bazirik.

Sasoi artan Sabroia'n zegon, Oñezko 54 Erregimentuan
lieutenant. Ona emen Duvoisin iritzi-emaileak zer idatzi zuen oler-
kari berriari buruz: (1)

"Il a été assez heureux sinon pour atteindre la perfection
pour émouvoir les coeurs" Benetan unki garri, ezti ta itunak ditugu
ahapaldi oriek erromantizismoaren arabera egiñak:

"Hogoi garren urtera hari naiz hurbiltzen
Eta nere oinetan tomba dut ikusten..
Ni zertako mundura etorria nintzen
Ondikotz ez sortzea neretzat obe zen.

Gazte umezurtz baten negarra dezute. Guraso gabeko semearen miu-
miña. Beste maitasunik ezin atzemanik Eriolari dei dagionaren otsa?

"Ez, ez, ez nau izitzen ez ni Eriolak
Laister ken dezdala bizia Yainkoak..

Lamartine eta aren eskolako zantzuak alakoxeak ziren: belaxkeri sobe-
raz kutsatuak. Andere Poesi arras egin zuten biotz-bera.. eta gure
saratarra barne.. Urte berean Leon Elizanburu Jean Batiste'fen anai-
ari chorezko aipamena eman zioten "Dantzaria" lanagatik.

(1) "Le Courrier" 1860 - Bayonne

Ez ote zen izan berak egiña?. Bada bere burua estaltzeagatik pseudonimo anitz artu zituen koblakari ahalkeak. Harluhe, Jean Vergez, Piarres Adame, Sallaberry, Lewy d'Arbiague eta aber.. Izen anitz batto ordea poeta.

Lyshuburu, Oyarrabal

Garaipenak bultzata, ezin etsi nunbait, ekiten dio berriz ere eder-lanari, ta poesi-puska berriak yalkitzen diren irudimenetik sagar-ondotik ale umotuak ~~bazter~~ bait litzan.

"Gazte hiltzera dohana" ren ^{berdina} asmo ta gogaiez "Txori berri-ketaria deitua dugu, onela asiera duala:

" Sor-lekua utzi nuen ondikotz ala beharrez
Yanko ona urrikalduz betiko nire nigarrez"

Etxeko berri dakarkion txoriñoari mezu au ematen dio:

" Croit adi ba txoria erri maiteko berriez
Nere aita, nere ama, nigarretan nik utziez.
Mintza akit ahaidez eta mintza lagun on hekiez,
Mintza nehor antzi gabe maite ninduten guziez. (1)

Guraso ta adiskide maiteaz ezin ahantzirik ahapaldi bakoitzean biotzak gañezka aien berri galdegiten die. Ongi neurtu, asmatu ta jositako itz-neurtuak naiz beti zerbait arrotz kutsu duten. Pitaka euskaldungoaren garra piztuko zaio barnean eta orduan elduko da Poesiaren goi-maillara. Erriko iturri garbitik edaten indartzen da erabat. Bestenaz irakurri "Agur Herriafi . Erritik at ibillitako semearen agur bero ta zorientzua. Kantu ozen eta gardena:

"Urrundik ikusten dut, ikusten ~~erria~~ mendia
Zeinaren gibelean bai dut nik erria. "

Pozkarioz beterik, aurra zela bizitutako lekua ta erria nabai-turik berez etortzen zaio mintzora goresmen~~en~~ jator eta asperen osasungarria:

"Madanik dut aditzen zorion andia
Ezkila maitearen asperen ezta.

Ahapaldi ^{guziak} ~~ori~~ zein baño zein egoki ta ederrago. Osorik ematea merezi lukete ez ba'genuke luzatzeko beldurrik. Azken-agurra bakarrik aldatuko dut amaitzeko:

"Ezkila berriz diat bihotzean pena
herritik urruntzean bakoitzan duana
neretzat hik ba'uen jo lehen orena
agian hik orobat joko duk azkena."

(1) - "Txori berri ketaria" 1871 ko batzaldian jarrita zioke. Pakea egindako gerr. Nere ustea Kasel (Alemania) atxilotuta egon zanean istua du. Oyarrabal (Garehu jaun).
(2) - Vinsorrek "gasciup pueine deihen dia. - Revue de Linguistique - 1892. Paris

(1) Plotow sven Marthe eresiaz baliakem du

(2) Adamen Si j'étais roi eresiaz.

Sorterria'ri ain gorak opa izan zizkion itz-neurtuak aipatu ondoren, beste maitasun batek, otsi andreanganako-amoriak eraginda idazti zituanaren txanda dugu: (4) Aingeru bati (1) (5) Maite Zaitut (2) (6) "Apecha ta Lorea" ta (7) "Maria" izentzat dutenak.

Lenengo biak arras erromatiko eran tayutuak arruntak dira. Ez dute ez errikoi-giarrrik ez ats-goitarrik. Aleunka maite-kanta oberik gure kantategian ba- dugula nago.

Aitzetik, bi azkenekoak banan-banakoak ditugu. Bai azal eta bai mamiz gutxi ain gallenank, ene iritziz.

"Apecha ta Lorea" elkarrizketa xarmagarri bat da mitxeleta eta lore batean artean. Idurimen eta aldeatze pulitetan parez-pare, aurrez, aurre doazen bi bizitzen griñak azaltzen dizkigu.

Inoiz bat egingo ez duten zaletasun ta irritza ordea. Maixko gizon-andre maitasun artean gerta oi dan antzekoa:

" Neguz primadera zenean jabetu
Sasi baten hegian apecha zen sortu.
Leku berean bait zen lorea gertatu
gachoek elgar zuten bihotzez maitatu.

"Lorea" emaztekiaren irudi da ta Eolo'ri intzirinaka ari zai o maitea urruntzen diolakotz..

Aize bihotz gabea zertako erritik
eraman duk apexa mendien gainetik?
zertako duk urrundu maitearen ganik
egaztin gaixo orrek ez zian obenik.

Eta zorigaitz eta nigarretan amaitzen da ipuitxo.

(Ariztimuño aundiak Aitzol antzi-eziñak oso gogoko zuan olerki au ta goraipatu zuen egunkari artikulo batzuetan.) 1862 garren urtean sariztatua izan zen, lenengo prima irabazirik 22 bertsu-lanen artean. Duvoisin'ek autatzaletatik bat izan zen. Beraz ederra zela aitortu zuan bañan Intxauspe'ri egindako letra batean esaten du: "Il paraît que la pièce est une imitation du français" (1) Gure poetak orduan ere estalirik gorde zuan bere burua, bañan gero ta ezagunako zuten. *Elferrik zuen izen-ordeak aldatzen.*

Urrumrik usaiaren arban bai zioten. Usaiaren goroa!

R.I.E.V. Daranatz. Correspondance de Duvoisin.

Goazen orain "MARIA" gelgarria eder~~tsit~~itza. A zer nolako pitxi ed~~er~~ eta esku-erakutsi bikaina ederzaleentzati Elizanburu asmo ta jakitzez nagusi, izkeraren jabe, gaiez ase beterik puska ederrene-tarikoa, "chef d'oeuvre", txapelduna eskeintzen digu.

Neurriz eta doñuz errikoia, lorietan, antziñako kopla-karien antzera lenengo gaia aipatzen asten da:

"Bertzek erran baitute
Nik baiño lehen,
Hanitz adituz dela hanitz ikasten
Nik dakidan bezala, guziek arren
jakin dezaten,
Beraz aipa dezagun Maria nor den."

Detxepare'k ere onelako neskatilla pozik ikusi zukela dio Mour-lane - Mitxelana jaunak, . Nork ez? So egin^{de io} zagun iduriz bederen.

Aztal biribil eta zangar hertsia
Eskuaren beteko zango bihia
ttipi- ttipia.
Golko bat aberatsa, lerden gerria
er~~ne~~ne begia
Nolako pampiña den horra Maria!

Ahapaldi ederra neskatxaren anbatekoa! Bertsuok edozein iz-kuntzetan emaztekien edertsauna goratzeko egin izan diranen aldame-nean ipiñi ditezkenak. Korputzaren edertasuna itzez adiaraztea ar-lo zailla da. Andere foesi ta Pintura-antzean mug^{bat} dago. Estetika auzia ^{3902ki} ~~Lessing~~ Lessing'ek Laaconte'n diarduna. ⁽¹⁾ Margo-ertiari ta ez Olertiari dagokiola soin-atalen aderra ageraratzea. Orregatik Home-ro'k eredu guzien eredu " das Muster aller Muster" au digu soil-soilik: "Nireus eder da". Akiles ordea oraindik ederrago. Edo ta bestela: Helena'k edertasun~~ak~~ jainkotiarra zuan", xehetasun geiago eman gabe. Lessing'ek bait ba-zekien, milla jendeek irakurriz ge-roz xehetasun oriek bakoitzak bere gisa artuko lituztekela.

Aitzitik, Aretino'k Horazio'ri jarraiturik "Ut Pintura Poesis" erakusten die margolariari: Emakumezkoen eder eredia arki-nai ba-dute Ariosto'ren ahapaldiak irakurri ditzatela. Alzina'ren doaiak banan-bana xehatzen bait ditu. Alabearrez poeta onak ~~pintza~~ margolari edo pintatzale bear omen: "Cuanto i buono Poeti siano ancora essi pittori."

(1) Lessing. Laokoon oder über die Grenzen der Malerei und Poesie
Leipzig -

14

Bianca neve e il bel collo, il petto latte
il collo e tondo, il petto colmo e largo
Due pome acerbe, e pur d'avorio fatte (1)

Erdel-aipamena luzexko atera zait bañan barkatuko al didazu-
te ~~pezen~~ arrotz esaera oiek gure olerkariaren gorapenarako izan
bait dira. Ez gemun gure Maria ahanzi nai ezi Begira Elizanburu'k
zeinen dotore azaltzen dizkigun neskatxa maratzaren ekandu ta oi-
turak:

"Erle bat da Maria etche barnean
Eta landan orobat ari lanean
behar denean.
Apaintzeko pulliki behin astean
noiz? Igandean!
uztai beharrik ez du soinarean pean.

Oraingo neskatxek ba-dute nun ikasi, segurki. Alare ez dago
beti alai gure Maria. Gazteek ere goibel izatea zer dan ba- daki-
te./ Ez dirauie ~~la~~ goibelak, gaztetasuna pozkario iturri bait dute.

2.11.1912
"Maria batzuetan ez yagin nola
goibel dagola
bertzetan nigartto bat yausten zaiñla
zer zaio axola,
Baluke nahi ba'lu aise konsola.

Burutik oñeitaraiño ahamen yastagarria Maria'ren au. Azkurri
gozo ta indartsua azken itzetaraiño:

"Errege ba'nintz a zer Erregiñai

Saratarrak bere bertsuak ongi neurtu josi ta berdintzen zekin.
Larresoro'n ikasia izaki, Mourlane Mitxelenaren arabera ~~(1)~~
Eroti ~~bikaiña~~ baiñan maite-kantak ez zituan geiegi ugaritu.
Ortan Bilintx nagusi du. Indalezio Bizkarrondo'k kexka ori sartua-
goa zeukan. "Juana Bixenta Olabe"n griña ori ageri du; "Izazu ni-
tzaz kupira" n gai bera darabilki; "Juramentuba," Neskatx bati"
Dolores'i eta abar maite irudimenez beterik daude. Nor ez da oroi-
tzen "Bein batean Loyola'n" donostiarraren zortziko ezagun ezagu-
naz? Konparazioak ere egin ditezke, Kontxesi, Malentxo, Kattalin
Maintoni, eta beste koplakarien maitagarri-izenak ikuskatuaz bai-
ñan bai ote da Elizanburu'ren "MARIA aiñakorik? Ene ustez au degu
euskaldun- "Minnesang" efedu. Norbaitek galdegin dezaidake
ea Maria ori egitazko neskatxaren bat izan ote zanentz edo ta
amets-irudimen bat. Ala izanda ere ezur ta mamizkoa baiñan egitasun
aundiago dute sarritan ^{Sur Unanimo} ere iritzi ortakoa degu.

Elizanburu'k Maria izena maixko erabiltzen du baiñan ez digu esan nor zanik. Euskaldun jator antzo bere biotz-atxikimenduta gutizia isilik, ezkutuan gorde dizkigu. Agian izen hura ez zen izan emakume on eta eder guzien ikur bat besterik. #

Gure olerkaria bukolikoa izan genun erotikoa baño geiago. Menditarren biziera maite du; etxea ta lurra goستن ditur~~maizenik~~ maizenik. Pakea zaio gogoko, armen/dirdai ta arrabotsak nardatu bait dute erabat. Arñai ta laborarien beharkizunak egin ditu bere. Oien auzi ta liskarrak erabakiko ditu guzien adiskide ta epaikari izanik.

lirikilla

Expeleta kantoiko juez bezala urtetan zaldi gainean joan oizan pakezko lagintza ohoragarria betetzera. Ez zuen irabazten zaldia bazkatzeño diña ta adiskide esku-zabal batek # "Ene" zeritzan zaldiautzi zion aundiro ibili zedin. # Zaldun eta zaldi an joan oiziran goitik beheiti.. Ehialarre ta Santa Katalina barne Expeletaruntz. Noiz nai geldituko ziran ~~expe~~ etxe-nagusi edo etxetiarrekin mintzatzera. Maiztarren errenkurak entzungo zitun. Ez zen oro kexa izaten. Etxekoandre zabalek arno-sorta ala gazta ta senberena eskeñiko zizkien, gereizi, sagar, mertxika ta udareak oraino ondu ga beak ziralarik. Eiztari zan Elizanburu ta maite zuen ontoketan ibiltzea. Ongi zekizkin Sara'ko bazter guziak eta eguraldi ederrez lorientan igaiten zen mendira egurastera. Donosti'ko Manterola jaunari egin gutunean(1) Artxuri mendiko berri jakingarria ematen dizkio.

Artzai bizitzaren garatzarrea "Artzaingoa"(8) deritzan eglogan dago:

"Ez naiz handietarik gizonen artean,
urrun, bakarrik nago mendien gainean,
artaldetto bat daukat han nere menean
harekin bizi bai naiz gustu ederrean

Tartean iritar alfer-nagiari akar egingo die ziri, itz oiek sartuaz:

Ohepean hagoen hiritar nagia
nola ezagut dirok nik dudan zoriai

Eta beste ahapaldi biribiletan mendiaren ederra kantatzen jarraikitzen du.

"Ene ez zuen bere" Ekzegarria, Lehenbutarrena baiirik

(1) - Emen eskutik osoa aldatu. Euskal. Eriuan dago.

"Artaingoan " ez ezen "Nere Etxea"edo"Laboraria" ez bestelako poema yaukalean goresmen hori erpiñeraño jasotzen du. Gure basetxe, baserri, nekazari ta laborarieri eraikitako bertso-aldi entzute aundikoena auxe dugu. Aundiena ta Euskal-Errian zabalduena. "Nere etxea" olerkiari lenen saria 1861 garren urtean eman zioten eta geroztik egin du bide. Gaztaroko lana dugula ezagun da, Guzua alai, baikor, txairo, arrosa kolore. Elizanburu'k eize-txango batean asma-tua omen. Eremuldegi'ko muñoan, goiz batez- diotenez- erbiari ai-duru zegola, zispa eskuan zuelarik, beste txindar bat jalki zitzaion irudimenera. Goi-txindar ortatik sortu zan "Nere etxea" eta egun batzuek geroago- lenengo aldiz Leherenburu Gustave adiskide mami zuen eta Etxegarai'ko nagudi zan supazterrean kanta marzal onen ahapaldi gozoak entzun ziran. Nork ez dakizki buruz?:

"Ikusten duzu goizean
argia asten denean
Menditto baten gainean.
Etxe ttipito aintzin xuri bat
Lau haitz handiren artean
Iturritto bat aldean
zakur xuri bat atean
an bizi naiz ni bakean.

Beste zortzi ahapaldi geiago darraite zein baiño zein dotorego. Virjilio'k berak ez zituen ezesitzen. Etxea ausarki goretsiz geroz, emazte, alaba ta semearen aipamen maitetsua egiten dizkigu; ondoren, osasun eta ondasunen kondaketa dator. Auek aberats porrokatu bate-nak ez ba'dira. "aurea mediocritas" aski du zoriontsu billakatzeko.

Zer nahiko dut bertzeriki

Lana goraiatzea bidezkoa derizkiogu, laborari ta nekazari ba-ten egipen nagusia neke eta lana izan bait dira, menderen-mende.. Lan eta jani Jateari ere opa dio erran-merran pullita. Ez du naski egunero otoruntzik egiten. Gutiaño mehe egunean, etxekoandre kris-tau zintzoak ez bait dio zingarrrik jartzean al eltzekarian..

Ez du mehe egunen
Sartuko ustegabea
Xingar ezur bat eltzean.

Bainan etxeko mandio, solairu ta ikullu aberez, tresnaz, bazka ta zituz beterik ikusirik aitortzen du

Ez gaitu hillen goseaki

Ikullu ta eiak ezin konta alako buruz ornituak daude: bei, ardi, aratze, ergi, zikiro, bildots, ahuntz zerri eta abar. Orrenbeste jabetasunez arroturik aldarrikatzen du:

Nereak dira guziaki

Bereala ordea, apalki, Goikoa'ri zor diola oro oroiturik, aitortzen du ordainez, ate-joka datozen beartueri eman behar zaiela biotz zabal:

Ez dugu behar lurrean
aise bizirik etxean
utzi laguna gabean

Au da, karidadea lagun urkoarentzat, Jainko-legearen lenengo agindua.

(Sindikien) Iru azken ahpaldiak familiaren/maitasunari eskeñiak ditugu. Aita'k Piarres semea arras gogoko dizu; eta arego oraindik Kattalin alaba amaren eite berbera duena. Lerde jariorik gabe ez romantizismoaren arabera bere emazte ta maitale duen Maria'ri, betiko Maria'ri itz zuzur eta xume auek zuzentzen ~~dik~~ dittio:

Nere emazte Maria
ez da andre bat andia
bañan emazte garbia.

Itz gutxi ta ez samurregiak, bañan agian etxeakoandre bati opa ditzaioken egizkoenak. Amaitzeko etxearen goresmena egiten digu berri. Bizi-leku izan duen etxearenai Bizi izan dan lekuan bertan iltzeko grazia Jainkoa'ri galdeturik.

Poema miresgarri au beste izkuntzetara itzulia izan da.

Rdoney Gallop angles euskaltzaleak bere liburu: The Book of the Basques onela erderatu du:

*by you see in the morning - at the first light of dawn -
- on a little hill - a small house white fronted - in the midst of
four oak trees - a white dog in the doorway - a little
fountain at the side - ? It is here that I dwell in peace*

Kantu onen doña ta neurriari buruz Errotarena jaunak, Musée Basque-, aldizkarian(2) zentzuzko xehetasun batzuek burutu zituen Elizanburu'k erabiltako aideaz eta geroztik egin zaizkion aldaketaz.

Lehen doña giar eta euskal kutsu geiagokoa zala, dio: bizi ta zaluagoa, dantza modukoa. Jendeak bein eta berritan kantatuaz baretu ta leundu zuen koral biurturik. Mde de Villehelio'k bere euskal kanta-sortan (3) hori bera aipatzen du dionean: "Elizanburu'k erabiltako zortzikoa ereskiñan jotzekoa zela. "Les charmantes paroles du "Laboureur Heureux" c'est un air instrumental.

(1) Book of the Basques London
(2) Bulletin de Musée Basque de Bayonne 1941
(3) Souvenir des Pyrenées- 1869

Musika 2 x 4 neurrian ipiñia dago ta "la" tonu aundian.

"Gure Herria" aldizkariak 1922 urtean emandako alda-aldian ere neurri ortan berean jarria dago baiñan ez du berdiña doñua. Gaiñera "sol" aundia deritzan tonu maillan ipiñia abotsak errezago kanta dezaten. Musika neurria bikoa ta irukoa nasirik doaz, euskal eresian usu gerta oi danez. Doñua elheari erantsia duela dirudi, eta ez itzak doñuari.

Beste orrialdean eta Errotarena jaunaren aipatu lanetik artuta ikus zenezakete "Gure Etxea" ospetsua Elizanburu berak eskuz egindakoa. Autografo baliotsua beraz,.

Ez dira oso ugariak Kapitain ohiak utzi zizkigun olerkiak: ogeiren bat ~~doi-doi~~ Emankorrago ditugu poetak geiñetan. Joriegi ere bai sarritan. Eta Poesian obe bait da gutxi ta auta, ta ez ausarki ta zabar. Lan on bat aski izan da batzuetan idazle bat goraiatzeko. Adibidez: Jorje Manrique'ren illeta -eresia. Orobat "Gure Etxea", "MARIA" Besta Biharamuna" edo Soferino ko itsua", orietako edozeinek Elizanburu'ren aipua barrea lezakean

Eta Solferino'ko itsua" poema ederra aipatu dugun ezkerro zerbait esan bear dugu seme galdu onetzaz. Sallaberry izeneko poeta batena zala uste izan bait zan luzaroan biak bat zirala ezagutzeka. Txapel batekin ezin estali, alabaiñan, bi buru eta azkenik agertu da aita bakarria gure olerkaria sarattarra duela.

1864 urtean saristatu zioten eta ao batez kritiko ta irizile-mirizle orok aitortu dute euskeraz egin dan ederrenetarik bat dala, ez ba'da garaiena. Ez dut emango iritzi bat besterik ta au gauzak onartzen latz eta zorrotz dan batena. Ona bada Orixe, gure idazle gallenak zer dion: "Neurtitz-aldi zoragarria" "Artatik igarriko diozu poeta izenik merezi ote duen eta euskeraz zerbait ~~bar~~nerik eta samurrik adierazi ote diteken(1)

Ain da eder, apain eta unkigarri ez dakit zeintzu ahapaldi erakutsi. Guzia ez aldatzekotan deus ez jartzea obe. Irakur zazute bada oso-osorik dagon lekuan.

Onela du asiera:

"Armen artzera deitu ninduen gazterik sorte etsaiak..

Orai azterketa labor bat egingo dugu erri-maitasunak, sorterri zaletasunak eraginda burutu zituen lanez. Prantzia'ko gerlari izan zanez biotz-min aundia eman zion 1870'n Alemaniak zafratu zuanean.

doi-doi

U

Deadar estu bat atera arazten dio barne-barnetik: ¡BIBA FRANCIA!

Urte guti du, gau ilun batez
lo zagolarik bere ohatzean
arrano bati lotu zirela
berreun bele batean.

Arranoa Prantzetar Imperioa'ren irudia da eta oldartu ta menderatu duten beleak prusitarraok dira.

Bentzutu zuten; ezin artiki
oinbertze etsai beltzen artean
hegal bat ere kendurik uts...
halare dabil airean.

Ez da oro goibele. Poeta ba-du itxaropen eta adore etorkizunari buruz:

Frantzes erria laister halare
goratuño da lehen bezala,
Umeeek amari bai ekarriko
beleek ebasi hegala.

Zirkunstanzi edo inguru-giroak erantetako olerkiak dirñla, e-sandu du norbaitek. Bai naskii. Goethe'ren iritzira-Eckermann'ekin izandako elkarrizketan-guziek omen dira zirkunstantzi olerkiak. Esan nai da: inguru-giroak arnas et indar ematen ~~erit~~ dienak. Ori bera dio Berne-Joffroy jaunak Valery poetari buruz:

"L'oeuvre de Valery est presque toute de circonstances. Quelques poèmes mis à part elle a été écrite sur commande." Elizanburu'k ere sariak irabaztearren egin zituen zenbait bertsu-lan, baiñan bai barneak aginduta ere. Prantzes leial eta bonaparte-zale suhar agertu zaigu, ikusi duzutenez, gure kapitaina. Poesi muga goitarretan ordea, griña hori ongi elkartzen daki bere sorterriari zor dion maitasunarekin. Euskal-Erria, bere kondaira, askele, tradizio ta oiturak ez ditu aanzten. Bizirik daude "Euskera ta Eskualdunak" deritzan neurtitzetan:

Mendi gaineratik asten ba naiz
kanta unen kantatzen.
Oihan zokotik oiartzuna
Zer dautak ihardesten?

Gure arbasoek eginiko "balentriak aizatzen ditu ta zenbait sasi-jakintsuen aurka jeikiaz:

Euskaldun guzien anaitasuna ta denek-bat jartzea gutiziatzen digu poetak azken bertsoan:

"Anaiak gaituk eskualdunak, orai ere oxala
jartzen ba'gira guziok bat, lenago bezala.

Ametz atseginai Gogo ta izpiritu ortaz beraz irazekia agertzen zaigu beste onoko oda "Eskualduna" deituan:

Eskualdun seme dena bedi alegerai
ikusten dut bet-betan ,oi zen den ederrai

Pozkarioz dario gure Erria, arbol baten idurian kantaturik:
arbol bat arkaitzan jarria. Erroz, sendo, tinko, egundaino garai-
tu gabea ta ohipoeta igarle ba'litzi sekula ihartuko ez dena. i

" Betor Karloman, betor Errolan, ez naiz aurtikia
Dugun ikus norena daiteken auzia .

Azkeneay oiua ez ezen irrintzia bortitz batez dardarazten du eguratsa:

Kanta berria dugun denek kanta gorai
gora eskualdun arraza azkarra
Biba mendi gainean eskualdun arbolai

Turutu soñua itzali dela ta ohiuak entzun ondoren Poetari so egingo diogu eguneroko gauza titxiak, arruntak erasten dizki- gula. Onela "Zapataina edo Gizon zuhurra" neurtitzan. Zergatik/soñuz ez?. Zapataria ere filosofoa diteke, zorientsu bere/sortez, pozik auzoaren bekaizkerik ez dualako. Aldarte oneko, munduko naigabe mi- xeriak pairatzen (jasaiten) bait daki eta Eriotzaren beldurrik ga- be. Marzial Erroma'ko iberitar poeta ospetsuak bere epigrama batean egin zuen antzera. Geroztik Plantino imprimatzaileak- Ambe- res'ko eta beste anitzek artutako bidea. Gure saratar zuhurrak o- nela dio:

Yakintsunen arabera nor berak du berea
Mundura gertu denean ekarria sortea.
Yankoak egin bezala nik maite dut nere
Nahiz ez den jenden ustez zorionez betea.

Lanak ez dio ikarik ematen gure zapatainari, naiz "argitik illuneraño jardun; eta mailu, trukes, ezten eta gainerako tresnak artuaz, eskuak pikez zikindurik ditualarik onu au ematen digu:

"Zoroak ez duanaren bethi du gutizia
atsekabeen bizi da nairik bertzen ongia

Gizon eredu orretzaz mintzatzen ari naizela gogora dator-
kit garai artako saratar Augusto Etxberri Suchardt aleman jakintsua-
ren euskera maisua izan zana. Nola nai den Zapatain zuhurra" Elizan-
buru'k bere irakurgai arrai PIARRES ADAME'n arras egoki kokatu zu-
en. An ikertuko dugu geroxeago nobelatxo edo eleberri hori ikuska-
tzen dugularik.

Orain beste lantxo bat "Infirmerian" deritzan
neurtitzaren txanda da. Grazien Adema- Zalduby adiskide mami zuenari
opaldua dago, irritsu ta jostalari gatzetasun oroitzapenez:

"Erran dugun bezala Grazien maitea
eritasun bat ba dut nik hainitz handia
mafrundi ta sukarra, bat eta bestea
deus ahndirik ez da baiñan goseñai /e

- Gixia

Eritegian ez ongi dagon baten zorigaitz/~~zele~~brea digu kontatzen.
Oñaze-miñak baiño gose ta jangañea arduratzen dute gizarajoa. Ez
bait du apetiturik gali Gai ontaz gure kantategian ba-dugu pizti
ederriki. Nor ez da oroitzen "Petiri Sanz," beste izenez "Txanton
Piperri" bertso parregarriaz? Eta "Mehetegi'ko zakurra" Xuriko'z
ain zuzen Zalduby'k asmatutakoa? Egia esateko aitor bear dugu
"Infirmerian" ez dala aien mailara irixten: ezñ duela ain izari
gotarra ardiesten.

Beste orrenbeste esan diteke "Tan, Tan, Tan
kadira-dantza edo ardo- kanta dalakoaz. Ez gaizki bapo jan-edan
ondoren errepikatzeko!

Auek utzita obe dugu aipatu, bateon bat beran-
tesirik dago onuzkero- Elizanburu'ren "chef d'oeuvre", poema agian
gallen eta osoena: "IRAGAN BESTA BIHARAMUNA baita ere "Lau andren
Besta" eta "Amets bat deitua. Izen oriek guziez ikusi dut aren es-
ku liburuan. Berebiziko lan bakar onengatik poeta saratarra euskal
Parnasoko gallurrera igana dugu. Oar bestela berseñ biribiltasuna,
solasen, indarra, ipuiaren grazia, egipenaren gatza ta piperra.
Guzia irakurritakoan, par-karkara artean, barne guzia poz-ikaraz
atseginez asea uzten digu. Geiago gabe ahapaldi batzuek ipintzea
aski:

Iragan besta biharamonean
Berek dakiten xoko batean
lau andre bat alarguna, iru mutxurdi jarririk itzalean
harri xabal bat belhaunen gainean
hari ziren hari ziren trukean

Lau atso oien gertakizun anakreontiarrek parrez ler egin araz-
ten gaitu. Nola ez truke jokuan ari diralarik laguntzat: pitxarrarekin,
zahattoa ta kuiattoa bait dituzte? Iru jaunak ongi hampatuak gaiñerai
Irudimen eta mintzoz a zer nolako bizitasunai Pil pil dago ipuia eta
argiz beterik egoitza:

"Zer othe duen nik jakin nahi
Pitxarrarekin bertze jaun hori.
Zorroa du biribila, moko meharra, ttente xutik egoki,
zahatto bat ote den nao ni
hanpatua, hanpatua ederki."

Azalpena ezin eta zeatzago egiña, josteta ez da gelditzen are gu-
tiago asetzen atsoen egarria. Arnoa dute atsa ta leloa:

"Handik ximiko, hemendik irri
haurrak bezala jostetan hari,
artean kolpe bat hegalpean denari /amodiozko
hitz bat erran gogo diote sarri
beharrira, beharrira khuari. "

Amargarren ahapalditik aurrera bizitasun eta sukarra gainditzen
doaz. Zorrotz dabilta mingaiñan itz eta pitzai elkar ausiki ta irain-
du naiez. Ontziak jadanik odol-ustuak, buruak bero, elheak sarkor eta
zirikalari, giroa kiskalgarri gudurako gertu:

"Bazkinagu tresna makurra
ez dunala hik atza laburra.
ez dun ez dion bezala horma xurgatuz biribildu muturra
ez eta naski gorritu sudurra
milikatuz, milikatuz elhurra."

"Iragan besta biharamona" oso-osorik koka bearko nuke emen baiñan
ez luzatzeagatik beste ahapaldi bakarra aldatuko dut. Itz mingotz,
gordin eta zorrotz geienik duena. Lore sorta leun eta usaintsua be-
gi-belarrien zurikatzeke eta biotzaren atseginerako. Arrandunek ez
diote errez ao gaiztoz irabazten ahal gure atso besta zaleeri:

Apho mutxurdin, moko bipila
zeren ondoan othe habila ?
Hatz ba dun gibel aldian, ikusiko dun zenbat naizen habila
xuhur ba dun ago neska zirtzila
ixil, ixil, ixil, ixil, ixil!

Ziz- ziñez diot, ene ustez au aiñakorik ez dugula gure literatu-
ran. Erabat artuta neretzako txapelduna. Iritzi au bera beste askori
entzun diet *eta Gukal-antologian leuengotako.*

Inongo klasikoak ere ez dute obeto tajututako zatirik: gaiez, izkeraz goi-atsez eta erretorika legeen arabera. Grazia guzien doai- ez ornitua doa "Besta biharamona!" Poliki-poliki asieran, beti zartola- ria, azkenean ea sarraskian amaitzen dala. Sorgiñen akelarre itxura artzen du Shakespeare berak itzalagoa asma ez zezakena.:

Beste bigarren egun berean,
lau gatu zaar anjelusean.
Bat maingu, irur saltoka, sorgiñak puyesi zoazzila
bidean
ikusi ditut nik amets batean
akelarre, akelarre gaiñean.

Bera aitor dezagun ao batez bidezkoak dirala lan onengatik E- lizanburu'ri egiten zaikion laudorioak. Gauza bat bakarra zuritu bea- rra dago: norbaitek jarri dezakela zalantzan bertso-aldi hori ez ote zuen poeta saratarrak beste nupetik artu; antziñeko koplakari ez eza- gun batena ez ote zanentz?. Auzi hau literatura guzietan sortzen da: alegia; aitarik gabeko bertso zaharrak nork egiñak diran garbitzea.

Ez dakit "Besta Biharamona" noiz argitaratu zan lenengoz. Ez dut us- te guzien ezpañetan, ondasun mostrenkoa zanai. Naiz ala izanik ere, osotu, edertu ta borobildu zueena aitzatzat ezagutzen dugu. Azken iku- tu ta orrazketak balio du, ta eman diona gelditzen da jabe ta nagusi. Bego saratarra baiibai-----

Elizamburu'ren ondarrak biltzera goaz orain. Aren azken la- nak ikertu bear ditugu. Gure gizona zaarra izan gabe, makalduxea da- bil, adin puska bat ba dizu. Eta okerrena dana alargun dago, andrea il bait zaio. Urteak anitz erakutsi diote, bati bat gizonen ergelke- riak ezagutzen. Biotza epeldu zaio eta gaztetan izan zituen ametsen gibeletik ibiltzeko gogo galduez. Gizartean bertatik-berta, urbil ikusi ditu justizi-eza ta mixeriak. Auek zuzen ditzaken politikaren aldekoa da. Kristau zintzoa da baiñan ez du maite apaizen nagusike- ria elizatik kampo. Fededun baiñan baita ere zentzudun. Jainkoaren se- me baiñan ez zenbait sasi-eliztarren politikaren mutil. Oriek izan zi- ran orduko burrukak eskuin-ezkertar edo zuri-gorri artean. Kapitain ohia demokrata ta errizale genuen eta ez zuen nai jende xeha aberats okitu ta jauntxo pean egon zadin. Asmo oriek inarosten ditu "Lehen eta Orai" neurtitzean:

"Izan nauk ipharrera ego aldetik
iguzkiko partera mendebaletik

Eta diat ikusi guzien gainetik
inozenzia hanitz gizonen partetik.
Abila aurgatik
duk egundainotik
egin gabe deusik
ederkiena bizi besten lanetik.

Zein urrun gauden "Nere etxea" gaztaroko ahapaldi bukoliko aie-
tatic. An poetak laborari ta lugintzaren ederra goratzen du. Emen
berriz, nekazariaren alde ari da, ori bai, bañan erabat errege ta
aundi-maundien aurka jaikitzen ikusten dugu:

Ba uan bat errege guzien buruan,
haren ~~urrun~~ inguruan
alferrak ituan
bizi deskantsuan.

1789'ko matxinadan irabazitako gizon-eskubidearen alde bere
abotsa altxatzen du:

Soil ez dik ehun urte, lagun maiteak,
gizonaren erronkan gure jartzeak.
Lehen batzu nagusi, esklabo bertzeak,
Geroztik jendeak
Lerro berean gaitik jarri legeak.

Ez uste izan Elizanburu naaspilla zaleetakoa zanik. Ez buru-arro
ta demagogo bat Chaho'ren antzeko. Bai zera! Gizon zuzen eta pake-
zale zala jakiteko azken bertsoak irakurtzea aski da, kristau mai-
tasunez beteak:

"Ala dadin aberats ala pobrea
gizona gizonaren duk aurridea.

elgar aditzea,
elgar maiztzea
eta ~~maiztzea~~ laguntzea,
hori duk egiazko Jainko legeai

Poematxo hau Elizanburu il da lau urtera, hau da 1896'n
bere errepublikano lagunek, propagandatzat Pau'n argitaratu zu-
ten Lewy d'Abartiague izen pean (1)

"Lehen eta Orai" lan orrek politika alderdikieriaz at
beste xehetasun bereziak ba-dizkitzu! Gai neurri eta doñutik darie-
nak. Koplakari aipatuena erabiliitako ber-berak ditugu. Esate ba-
terako: Otxalde eta Etchaun'ek elkarren artean izandako guduan,
"Gaztetasuna eta Zahartasuna" gaiez izari hori ar zuten.

Baita ere Xempelar'ek aire ta puntu orretan eman zigun:
"Nagusi ta Morroia" kanta ederra, "Lehen eta Orai" onekin zer iku-
si aundia duena. Onela errenderiarrak dion lekuan :

Nere nagusi jauna etxeko berriak
dira ezin geiago negargarriak.

(1) Julien Vinson- Essai d'une Bibliographie Basque - pag. 723
inson


saratarrak oin berean jardesten du:

Zinez zorigaitzeko denbora hetan
nolako mixeria zen bazterretan.

Gipuzkoarrak anai-arteke guduaren kalteak adierazten ari zaigu-
eun urten buruan, zoritxarrez, geronek ezagutu ditugunak- eta la-
purtarrak berriz, nekazarien ondamena jauntxo pean azaltzen di-
gun bitartean:

Sortzetik iltzaraiño laboraria
uztarri pean uan ire tokia.

Bi bertsulariiek erri xeharen arimaz ongi jabetuak ziran eta ba-
zekizkiten jende arruntaren biotzeko xede eta gutiziak: pake, zuzen
eta libertadea. Azkatasun, anaitasun, berdintasuna beste itzez.
Auek izan bait dira eskualdunok beren errien jaun eta jabe izan
diralarik geien maite izan dituzten gogai ta naikundeak.



Elizanburu'k egindako itzaneurtu ezagunenak arakatu ditugu.

Utsune bat nabaituko litzake nere lantxo ontan ez ba'nu zerbait
aipatuko itz-lañoz prosaz idatzi zuen "Piarres Adame" irakur-
gaiaz. "Zenbait hitorio Lapurdiko eskuaraz" deritzana. Damurik
lehen zatia besterik ez zuen amaitu, baiñan irritsu ta txanbeliña.
Oleta'ko bestetara egin txangoa Piarres'ek eta beste mutiko batek.
"Jakín zazu, digu Elizanburu'k, -irakurtzaille maitea, mutiko hura
zela lerro auek emen iskribattzen dituen bera"

Gertakizun politak dira bi laguneri bidean jazorikoak
eta Piarres'ek mutikoari beste ipuiak kontatzen ditio, kantaturik
gaiñera lehen esan dugun bezala "Gizon zuhurraren itz-neurtuak.

Piarres Adame'ek oben bat balin ba'du laburregia izatea da.

Itz-lauz ez digu utzi beste lan agiririk, Alabaiñan ezagutzen
dugu eskutitz txukun bat Donostia'ko Jose Manterola "Euskal-Erria"
aldizkariaren zuzendariari egiña. Emen doakizute ikus dezazuen
"Piarres'ekoko semeak nola ezagutu eta maite zituen Sara'ko mendi
bazter eta ~~aber~~. *inguru mai gusiak:*


Zer esan aundia genuke oraindik saratar poetatzaz. Gaurko jendeak beste euskal olerkarien artean zer mallan jarri diteken jakin naiko lukete. Luze litzake galde horri zuzen erantzutea. Batik bat azken berrogeitamar urteetan burrundara ta eman gaitza izan bait da gure bertso-langintzan. Oiana loditu da ta urbillegi gaude zuaitz-ondoeri so egin eta banaka izenak ematen asteko. "Euskaldunak" poema lerdan, tantai, aber~~tas~~ et joriaren inguru ta itzalean-errege be-
 ra bait dugu- beste lore usaintsu, guri ta margoiz disdiragarri, sortu dira gure Poesiaren eremu garbian.

XIX garren gizaldiko olerkarien artean bai ausartzen naiz esatera Elizanburu bikaiñena izan ote zan. Mourlane-Mitxele-
 nak dio (1) garaitasun ori Prantzia'ko Lyceo'tik artua zuela, Larresoro'tik esan nai du, alegia. Ez da gezurra. Alabaiñan, ikaste-
 txet~~rik~~ artan ikasitakoaz kampo, bere etorriaz at, Elizanburu'k Sarako erriari asko zor zion; jaioterrian bildutako ondoreari.

Axular, Joannes d'Etxeberri, Harizmendi, Harostegi, Lahe-
 jutzan, Joannategi, Diturbide, Iturri eta beste zenbaitek lurra lan-
 dua utzi zioten. Atsotitz zaar batek dio: "Saratarrak mintzari ede-
 rrak" Eta onela gure poeta ere mintzari eder, izkuntz eta solasez
 nasaia itz-neurtuak ozen eta egoki koblatzeko berezia.

Hiribarren'ek bertsuak josten ditu baiñan murriz. Ez
 ao-gozo; ez du biotzondorik. Etxhaun, Otxalde, Dibarrart eta Xenpelar'
 ek bertsolari errikoi, zorrotz, eta bizkorak dira, ez udte ordea Elizanburu'ren jakitatea. Lapurdi'n Adema-Zalduby ba-
 kakra da Elizanburu'rekin neurtu ditekena; eta Bidasoz onuntz Bilintx,
 Arrese-Beitia, Pedro Mari Otaño

Saratarra alaz guziz osoena eta ene iritziz garaiena.



Elizanburu'ren aldiari "mugatiarren aldia" deituko nioke. Prantzesez "douanier" aroa edo. Izan ere orduko euskaltzale geie-
 nak muga inguruan bizi ziranetakoak bait ziran. Duvoisin kapitaina-
 tik asi ta Otxalde, Dasconaguerre, Fabre, Karrikaburu et abar.

Bestela "bonaparte-zalleen aldia" deitu genezake. Napoleon III garren buruzagitza euskaltzaletasuna pizten asi zalako. Duvoisin' ek oda bat eskeñi zion Napoleon "txikia'ri eta L. Luiz Bonaparte

(1) "La poesía vascongada en el siglo XIX Libro 1 Congreso E. V. de

illoba ta prinziptea euskera sakon ikasi ta ikertzen asi zan ortako Euskal-Errix guzian ibilliaz eta bertan laguntzaleak arkiturik. Sasoi artan berean, D'Abbadie d'Arrast jakintsu ta esku-zabalak prima ta sriak ausarki eskeñ/zituen, bere sakeletik, eta leia zan gure joku, oitura, dantza, izkuntza ta literaturaren alde. Hori aski ez dala Napoleon'en etzaldea udaran Biarritz'era etortzen asi zan. Ordu arte errixka bat zana errege ta jende aundi-mandien bizi-leku biurturik. Enperadore bikote altsua gure errialdetan ibili ziran, iñoiz ere Sara'raño elduaz. Baita ere emendik Larrun mendiraño iritxi ziran Jaun-andre agurgarriak.

Eujenia andre emperatriza ain zan eder, lirain eta graziduna nunnaiko jendeak txunditurik uzten zituna. Larrungo mendi gallurrean aren egonaldia aantzi ez zedin piramide itxurezko arri luze bat zutik jarri zuten ta bertan itza auek koskatuak:

"Higan da Eujenia
Larrun gaineraño
jakin behar berria
mendek dirauteno,."

Bonapartetarren bigarren buruzagitza arras aiputan zegon: "L'empire c'est la paix" zioten. Euskaldun aundiki bat izan zan Marquis d'Huart itz-neurtutan goratu zuena: "Ereñotz eta Aritza" deritza kantak eta luze litzake eta gogaitgarri- ainbeste bertso doaz-i emen ezartzea. Eujenia de Montijo española sortzez eta Prantzia'ko buruzagi ~~Napoleon XIII garra~~ andrea ezkontzaz euskotar jatorrikoa zan (Montalban-~~Urteaga~~) Gautegiarteaga Bizkai'ko jauregiaren ~~gurea~~ etxe jabea .

Orregatik Gernika'ko batzar nagusiak 1856 'ko Uztaillaren 17'n ohore egin zion Eujenia'ri eta bere semeari bizkaitartzat aitorturik. Geroztik Jauregi osoa eraberritu zuen.

Ez zuten asko iraun maite-asarre eta omen oriek. Gudate ta matxinadak errege-erregiñen alki ta buruzagitza suntsitu zituzten, errialdeak bere kasa erbaildurik lagata etorkizunari buruz. Bizia ez da beti Poesi, ez errege, ez erri ez gizon bakoitzarentzat. Ezta, naski ea azturik utzi dugun Elizamburu'rentzat.

Onak eragozpen eta ondasun-eza ezagutu zituen eta beste gainerako burrukak. Prantzia'k gerra galdu ondoren eta berriz Errepublikan nagusi zala beste eztabaida ta liskarrak politika barnean Eliza ta Estadia berezi beharra, apaiz-zale ta laikotarren arteko eztabadidak. Eskual-Erriaraño ere eldu ziran erra txarrak piztuaz.

fugituak?

Berriz ere piztu zan etsaigoa arritarren aretan, batzuek "xuri, besteek "gorri" izanik. Gure poeta, esan gabe doa, "gorrixka" ginduela. Bere adiskideekin "Serorainea" edo Itsillarr'eko "Etxe-berri'n" bilkurak egiten zituzten. "Behitjar" bait ziran.

"Xuriek" aldiz Diharasarry sutsua buru zutela goi aldean plaza inguruan zuten biltzar lekua.

Gauza bitxia da jakitea aldi artan Sara'n gorriak zira-la nagusi; Senpere'n, ordez, zuriak agintari. 1789 ta ondorengo urte lazzetan senpertarrak "matxinadazale" purrukatuak agertu ziran, saratarrak aitzitik Errelijioaren begiratzalle zintzoak, Larralde'ko Madalen neskatza zutela aintzindari.... Errelijio kariaz ezik, kontrebando zerbait tartean ba-zala esaten dutenak ba-dira. Ez zagon espantu larririk aterai Erri biak auzokide, fededun eta euskaldun adiskidetu ziran. Politika'k berezi zuena biziak elkartzen joan da urteen buruan.

Elizanburu egun aietan ezagutu zuena andre zahar batek esanda dakit azken urtetan itxura onekoa zegoala, gorputzez mehe, arrai eta begitarte legunekoa Eizagirre J, jauna, nere adiskide maite ta ertilariaren irudian dagon gisakoa. Makila zeraman eskuan- sariketetan maiz irabazi zuen zillar-kirtendun ~~axi~~ aietako bat. Sara'ko pattarak goiti-beiti kurritzeko beharrezko laguntzaillea. Ez zan zaharra oraino 1891 garren urtean ~~ikozak~~ Abenduaren 31'n il zala, plazako Leku-ederra etxean 63 urte zituelarik.

Azken unean Adema-Zalduby aspaldiko adiskidea alboan zuen eta elizako sakramentuak eman zizkion. Biek Larresoro'ko gaztaro urteetan bezala elkarrekin bildu ziran. Eta Grazien kalonjeak lagundu zuen ondo iltzen Jan Battita "Piarresenekoa."

Elizanburu'ren eriotzak dolumen aundiaz ~~atxiztzen~~ bete zuean erri guzia, etxeko ta adiskideak nigarrez utzirik.

Laudario ta goresmenak agertu ziran alde guzietatik, udaberriz, loreak antzo. Damurik, ez zan ain biotz-zabal agertu ~~badu~~ astekari "xurietako" bat, bada maxiaketa murrizta egotzi zion (1) X

Nekroloji arras amultsua R. Wentworth Webster ingles eliz-gizonal opa ziona izan zan. (2)

Webster jaun au Sara'n bizi izan zan 25 urte buruan. Oso adiskide zuen Elizanburu'k eta orobat bear dugu izan euskaldun guziek. Aski zaigu aren "loisirs d'un étranger au Pays Basque" liburua irakurtzea.

(1) "La Semaine" Bayonne- 3 Janvier 1892
(2) "Euskal-Erria Donostia 1892

Bi lagunek maiz ziarduten Sara'ko euskera zala-ta gainerako euskal auziaz. Webster'ek D. Karmelo Etxegarai jaunari egin eskutitz batean, aipatzen dio zer nolako solas luzeak egiten zituen Elizanburu'rekin; eta onek oararazi zikiola Sara'ko euskerak bere gazte denboratik onuntz jasandako aldaketaz, bai itz eta esaeretan.

Webster "Bexiania" deritzan "Lehen-Bizkai' ~~xx~~ auzoko etxean bizitua zan urte batzuetan. Eta gero plazara aldatu zan "Bista-Eder etxera, bertan jarraiturik il artio.

Saratarrek Webster jauna biziki maite zuten naiz apez protestantea izan, gizon zuen eta ona zalako. Batik bat "lehen-bizkaitarrek" beretzat zeukaten et ez saltzeko. "Zakolin-Zankar" bertsolari arloteak letari-kantan onela zion:

"Angles ederra Bexieneko!

Webster'en oroitzapena Sara'n ez dedin ahantzi "Bexianea" etxean Eusko- Ikaskuntzak urtean arri landu eder bat ipiñi arazi zuen.

X

Andik urte gutxitara "La Tradition Basque" 1897 garrenean Donibane Lohitzun'en ospatu batzar nagusia, Sara'no ere eldu zan bertako Erri-Etxe sarrera gainean eta Leherenburu Gustabo jauna auzapez zala arri-lau batean opari-itza auek agertu zituzten:

Elissanburu neurtt-hitzlariari
Euskaldun Batzarenaren
Oroitzapena
Buruillaren 13- 1897

X

Aspaldidanik Elizanburu'ren lanak liburutto batean bildu bear lirakela anitzek eskatu dute et neronek askori entzundako galdea da. ~~Ona emen bere asmo hori, naiz berant eta onak~~ Orregatik asmo hori betetzen ausartu naiz. Ona emen nere lanaren xedea.

~~Behetasun~~ eta zozokeri geiegiz anpatua dudala norbaitek esan lezake. Gaurko egunerako inori axola ez dion gaia dala epaituko dute beste batzuek. Nik nere egin bearra bete dut eta nai duenan nai duena esan beza. Sara'n zortzi urtez bizi izanak ausarki izan nuen astia. Ene oporraldi luzean Olerkariaren urratzen gibeletik ibillia nauzu. Aren zantzuak usnatu ditut zuri eskeintzearren. Nefe nekea gogo onez artzen ba- dezu, irakurle, ez dut nai beste ordainik. Utsegitean erori ba- naiz nere asmoaren zuzena bekit barkakizun.

Ez dut inor iraindi^u nai izan; eta are gutxiago aspertu.

Au dala-ta irri-ipuin batez guziera agur eginx gogo diet ibil-
kunde oni amaiera emanex. (1)

Ba- dakizute, naski Sara'n ez dala geiago elizanburu-
tarrik. Poetak ~~xx~~ ukan zuen seme bakarra, botikarioa, bera, Farma-
zia dantxoa, Sarán zabaldu zuen lenbizikoz; eta gero Bayona'ra aldatu
zan. Arkupetan neronek izena ikusia dut: Elizanburu botikario euskal-
duna. Ez da dudarik Sara'n baiño bezero ta irabazi geiago zituela.

Saratar zenbaitek ez zuten ori sinetsi nahi. Elizamburu bo-
tikarioa Sara'tik Matxin sempertar bertsulariak kazatu omen.
Aizatu? Nola ordea?....

Urte berri egun batez Mattin eta gazte multso
bat arrats- apalean errondan zebiltzan. Oitura danez etxez-etxe es-
kean: Zingarra edo arraultze; bat edo bertze. Biek orobati

"Botikarioanean' ez zien fitzik eman eta bertsulariak gaiz-
toz ziri zorrotz au jaurti zien:

" Agur botikario,
saltzen duk erremedio
Tzar eta kario,
Amaika il duk Sara'n
I aizela medio..."

Biharamunean Elizanburu Bayona'ra joan omen zan eta damurik
ez ta geroztik itzuli. Sempertar bertsulari batek saratar koblakari
aundiaren semea uxarazi alajaña. Eskergabe. ^{Keri} ~~garrisi~~ ^{Beltra}

Utikan!

Sara 1944- Donostia 1952

(1) Supazter askotan berotu nintzan eta beste anitzetan izan mai-
kide

Onen ondoren doaz 18 Heurtik.

31 orrialde arhen dituztenak

